

# LAKUEN DISTRITUA

## ESPLORATUZ (II)

Pyrenaiako 2018ko hirugarren alean Begoña Fernandezek eta Paulo Etxeberriak idatzitako "Explorando el Distrito de los Lagos" artikulua bikaina oinarritzat hartuta, bertara bidaiatzea erabaki genuen lagun batek eta biok. Artikulu hau, beraz, beste hura osatzeko asmoarekin idatzita dago eta, horrenbestez, bertaratzeko asmoa lukeenak informazio nahikoa topatuko du bi artikuluko horietan.

### TESTUA ETA ARGAZKIAK



Mikael Lizasoain Tamayo

Erretiratu a. Mendizalea eta ibiltaria. Donostia-ko Antiguako mendizaleen elkartzeko kidea.

### BIDELAGUNA



Mikael Martínez Fayán Jc.

Erretiratu a. Mendizalea, ibiltaria eta bidalaria. Donostia-ko Antiguako mendizaleen elkartzeko kidea aldibasa.



Cumbria konderrian dago Lake District Ingalaterrako ipar-mendebaldean, Manchesteretik auztz, ordu pare batera. Gu Loiusik Manchesterera hegazkinez bidaiatu eta bertako aireportuan auto bat alokatu genuen. Ez dut gezurrik esango; Manchesteretik Lake Districterako bidaiak nahikoa estresagarria gertatu zitzaigun. Hegazkina atzerapenez irten, autoa alokatu eta errepidean bidaiatzen hasi ginenerako nahiko berandu zen. Hori gutxi ez eta konponketa lanak topatu genituen eta, ondorioz, auto ilarra luzesk. Tuntzean eta kamioi trafikoa astunarekin egin behar izan genuen bidaiak. Gure "etxera" iritsi ginenerako hamabi eta erdiak ziren. Eskerrak etxeko-andrea emakume atsegin eta abegikorra tokatu zitzaigun!

Ingu ru honetako eguraldia nahiko maikorra dela jakitun, ekainaren lehen bi asteetan etortzea erabaki genuen; egunak luzeen diren datetan alegia. Uda atarian egonik ere, eguraldia uste baino txarragoa gertatu zitzaigun, bereziki lehen hiru egunetan. Esajeratu gabe neguko baldintzak izan genituela esan dezakegu. Ingu ru honek bere berezko klima sortzen du. Tsa-

soaren gertutasunak eguraldi baldintzak azkar aldarazten ditu. Gu gehien hamitu gintuena haizearen zakartasuna izan zen, baina baita ere zeinen bizkor aldatzen den eguraldia. Une konkretu batean eguraldi eguzkitsu antzean dago, baina, bat-batean, hodeiak ziztu bizian sartu eta euripean ikusten duzu zure burua. Hortaz, ohar modura, mendi hauek korritzeko asmotan datomenak eguraldiaren iragarpena ongi aztertu beharko du eta, edozein kasutan, baldintzek, noiznahi, okerrera egin dezaketela kontziente izan behar da.

Esan gabe doa, arropa egokia behar-beharrezkoa da. Hala ere, zortzi egun ez, elkarren segidan, atera gara mendira eta behin bakarrik utzi diogu tontomera igozteari. Eguraldia txarra ala ona izan, hemengo jendea ez da erraz kikiltzen; horretan gu baino dezente gogorragoak direla esango nuke, ezinbestean seguruenik.

**Eguraldia txarra ala ona izan, hemengo jendea ez da erraz kikiltzen**



Mickleden harana, Cumbria Way

2018ko artikulua hark proposatzen zituen hiru ibilbideak itxiak ziren, hasi eta bukatu leku berean egiten zuten. Guk proposatzen ditugunak ere "ferra" (horshoe) iturakoak dira edo, nahiago bada, zirkularrak. Baina, eguraldiaren aidakortasunarekin batera, bada inguru honek duen ezaugarri

berezko bat. Mendi-kate honen orografia partikularra dela medio, ibilbideak egiteko, kateatzeko, aukerak mugagabeak dira. Leku guztietan bezala, tontor batzuk, ibilbide batzuk, oso popularrak izango dira, baina, esan bezala, bide bat beste batekin lotzeko aukerak kontaezinak dira.

Mendi-multzo honen beste ezaugarri bat bere orografiaren izaera leuna, "abegikorra" da. Biltaria, behin beheko abiapuntutik mendi hegira igota, muinoz muino egingo du aurrera, aldapa belartsuen gainean beti ere, ibilaldia esperientzia gozagarri eginez. Guk burututako ibilbideetan izan ditugu eskuak jarri beharreko pasarteak baina oso bakanak eta erraz-errazak izan dira. Mendian minimoki ohituta da goenak ez du zailtasunik topatuko hemen proposatutako ibilbideetan. Laburbilduz, mendizale "lasiientzat" inguru aproposa da Lakuen Distritu hau.

Bada beste asunto bat kontuan hartu beharrekoa. Aparkaleku ia guztiak ordainpekoak dira (5 £). Hemengo turistak eta mendizaleak, orokorrean, horren alde daudela esango nuke (aparkalekuak pagatu behar izatearekin, alegia), izan ere, bildutako diru horrekin, besteak beste, mendi bideak atondu, txukundu, egokitu egiten dituzte hariauzekin. Inguru hau oso-oso bisitatu da eta horrenbeste ibiltari, mendizale, gora eta behera ibiltzeak nahi eta nahi ez bi-

#### Seathwaite herriko polita





Stickle Tarn. Pavey Arketa Harrison Stickleartearen

deen, xenden higadura ekartzen du berarekin. Bideen higadura eta haien inguruetako hondamena saihesteko asmoarekin hemengo erakunde batzuek (National Trust, National Park Authority) bideak harlauzez estaltzeari ekin zioten. Mendizale batzuen iritziz harlauza horiek labainkorrak dira hezetasun edo izotz baldintzetan (hau da, ia beti) baina, orokorrean, politika horrek kalte baino on gehiago egiten dio inguruneari.

### **Bildutako diru horrekin, besteak beste, mendi bideak atondu, txukundu, egokitu egiten dituzte harlauzekin**


Lake District eskualdea, hedaduraz, ez da oso zabala. Horrek esan nahi du lotarako aukeratzen den ostalua lurraldearen erdialdean aukeratzen bada, autoarekin egin beharreko desplazamenduak laburrak izango direla. Kontuan hartuta ezkerretik gidatu behar dela eta errepideak estuak direla,

zenbat eta gutxiago bidaiatu autoz, hobe. Guk Millbeck Farm eta Ashness Farm landetxeak aukeratu ditugu lotarako. Ashness Farm Keswick-etik gertu dago, haren hegoaldean, eta nahiko ongi kokatua txango ugari egiteko. Millbeck Farm, berriz, Great Langdale izeneko haran ikusgarrian dago.

#### **Fairfield-eri igotzen**



Gosaria, English breakfast motakoa: arrautzak, xingarra, salboidxa, babarrunak, txanpiak, tomatea... Ez da izango munduko osasungarriena, baina arratsaldera arte irauten du hark homitzen duen barne-energiak. Aide horretatik eskertzen da. Horrekin esan nahi dudana da, guk Donos-



Pico of Sickle

tiatik ekarri dugun "pikearekin" nahikoa izan dugula afaltzeko ordua iritsi arte; ez dugu erosketarik egin behar izan. Horren mendizale inguruan egonik, gosariak goiz eta azkar zerbitzatzeko zigutela pentsatzen genuen baina bi farm-etan 8:30ean eman digute, ez lehenago.

Bada beste detailtxo bat aipatu gabe utzi nahi ez nukeena. Gehiegizko pisua-rekin kezka duenak eta, ondorioz, gaine-tik kilo batzuk kendu nahi dituenarentzat, lurralde hau ez da leku txarra. Landetxei bbib (bed and breakfast) deitzen badiete, hemengo "jate-txe", pub edo dena delakoek gñg (gaizki eta garesti) deituak izatea merezi dute. Sentitzen dut, baina Britainia Handiko jate-txetan eta pubetan, oraindik ere, ez da ondo bazkaltzen (nire iritzia da, noski).

Ondoren, guk egindako lau ibilbideren deskribapen laburrak doaz. Hasieran aipatutako artikuluan zeudenak ere burutu genuen. Ederrak baina ederragoak hirurak ere. Horrenbestez, eskualde zoragarri hau bisitatu nahi duenak badu non aukeratua.

**MILLBECK FARM. NEW DUNGEON GHYLL  
MICKLEDEN. STAKE PASS. HIGH RAISE  
(762 m). SERGEANT MAN (734 m)  
STICKLE TARN. MILLBECK FARM**

14 km / 708 m-ko desnibela /  
5 h (6 h, siestakoa bame)

Ibilaldi zirkular honi Millbeck Farm (110 m) izeneko landetxetik eman diogu hasiera. Bertatik abiatzearen abantaila nagusia da ez dugula autoa mugitu beharrik izan. Bertan hasi eta bukatu egin dugu. Landetxe hau XVII mendeko etxe bat da, Great Langdale haran ikusgarrian estrategikoki kokatua. Baitu-gela konpartitua da baina, gu bakarrik gaudenez, guretzat bakarrik izan dugu. Hortaz, bertan lo egiteko interesa duenari baitu-gelaren aldameneko logela eskatzea komeni zaio. Gaineratik, leihotik bista eder-ederra dago. Guk uste genuenaren kontra, gosaria 8:30ean zerbitzatzaren du te, ez lehenago. Nolanahi ere, ekainean gaude eta eguna luze-luzea den ez (Euskal Herrian baina dezente luzeagoa) ez digu sobera axola; egun osoa dugu mendian barrena korritzeko.

Errepidearekiko paralelo doan bidetik Old Dungeon Ghyll hotelaren atzealdetik pasatu gara. Gutxira Mickleden izeneko haran zabal, berde eta ikusgarria iritsi gara. Oso-osoa paraje ederra da, giza aztarnarik ez duena. Bertatik ibilbide luze-ko Cumbria Way pasatzen da. Baitararen hondora iritsitaokan ezker alia eskuin egitea erabaki behar dugu. Gure hasierako asmoa Bowfell igotzea da eta horretarako ezkerrean jo behar dugu, baina, lainotua egoteaz gain, haize bortitza dabilenez, eskuinera jotzea erabaki dugu, Stake Pass-era alegia. Xenda sigi-sagatsuan gora eginez, ia oharkabean lepora iritsi gara (474 m). Hortik High Raise ton-torrera mendian barna igo gara, belarrezko alfonbra batean.

**Hortik High Raise ton-torrera  
mendian barna igo gara,  
belarrezko alfonbra batean**

High Raise-ko ton-torrean haizeak oso bortitz eta "urakantsu" artean jotzen du. Eskerrak harrizko saroi bat dagoen ber-



Rosthwaite-ra jaisten

tan babestu ahal izateko. Nola edo hala Sergeant Man-era iritsi gara. Goi hauetan ibiltzea gozamen hutsa da. Aurrerago, zoko gune batean aterpetuta, eguzki-izpi lotsati batzuen goxotasunean, atseden laburra hartu dugu (dena esaten hasita siestatxo bat ere egin dugu). Stickle Tarn aintziraren ondotik pasa eta gero ibilbidea itxi dugu erreikaren aldameanean, arretatsu jaistea exijitzen duen xenda batetik.

Buttermere aintzira, Haystack-etik



**HONISTER PASS. HAYSTACKS (598 m). BLACK SAIL HUT. GREAT GABLE (899 m). GREEN GABLE (801 m). HONISTER PASS.**

14,8 km / 1035m-ko desnibela / 6 h

Honister Pass-eko aparkalekuan utzi dugu autoa. Inguruak, eskuarki, jendez gainezka egoten dela nabaria da. Mendirako abiapuntua da eta, gainerik, arbelezko mategiak, ostatu bat, museo txiki bat; denetik dago. Behin pixka bat munduta, ohiko la-

saitasun eta edertasunera itzultzen gara. Inolako gorabeherarik gabe, Haystack tontorrera iristen gara. Haranera jaitsita Black Sail Hut aldamenetik pasatu gara. Kanpotik begiratuta ibourra on du aterpeak. Pentsatzen dut ez dela irekia izango.

Zubia gurutzatuta, Kirk Fell-en magaletik zeharka, altuera galdu gabe, Beck Head lepora iritsi gara. Eguraldi lainotu, ilun, euritsu eta hai zetsua dago eta, hala ere, gure aldamenetik morroi bat pasa da korrika... galza motzetan!! Guk Great Gable-ra igotzea erabaki dugu. Igoera pikua eta luze samarra da; kostatu zait puntara igotzea. Tontorreatan ez da kozkoarik ikusten, tamalgarría da. Jaitsieran, uneren batean, eskuak jarri behar izan ditugu. Nahiko pikua da jaitsiera hau, belauak protesta ari zirela ikusi nahi. Hala ere, ibilbide hau guk egin dugun noranzkora egitea gomendatuko nuke, aparkalekuk Grey Knotts-erako igoera benetan gogorra da eta.

**ROSTHWAITE. SEATOLLER. GRANGE. LODORE. WATENDLATH TARN. ROSTHWAITE.**

15 km / 461 m-ko desnibela / 5 h

Oso ibilbide erraza eta atsegina. Autoa Rosthwaite-n aparkatu dugu. Basotik doan bidetik Seatoller aparkalekuraino iritsi



Stool End Farm

gara; ez da beharrezkoa, lehenagoxeago eskuinera hartu behar da. Grange herrira iritsi baino lehen, ibaiaren ertzean, hamaitakoa egin dugu; leku zoragarria horretarako. Grange-n taberna-gozotegibatean garagardo bat hartu dugu lasai-lasai. Gero, errepidea utzi ondoren, basoan gora egin dugu erreka xarmangarri baten aldamenetik. Watendlath Beck haranetik izen bereko aintzirara heldu gara. Tarte hau ezin ederragoa da. Lasai eta berriketean autora iritsi gara.

**SEATHWAITE, ESK HAUSE  
ESK PIKE, BOWFELL, ESK HAUSE  
GLARAMARA, SEATHWAITE**

17 km / 1123 m-ko desnibela / 6 h 30 min - 7 h

Gure hamidurarako, herrira iritsi baino lehen, bide bazterrean aparkatzeko aukera dagoela konprobatzen dugu eta, bertako jendea bezala, hala egiten dugu. Dohainik, noski. Herrian belardi zabal bat prestatua dute aparkaleku modura. Herrikeren er-

di-erditik pasatu gara. Agerikoa da bidea. Stockey bridge-ra iritsitakoan aurrera jarraitu dugu Esk Hause leporaino. Mendizale asko dabilta hemen; izan ere, gehien-gehienak Scafell Pike-ra jotzen dute, Ingalaterrako tontorrik altuenera, alegia. Aurreko batean Bowfell-era igo nahi izan genuen eta haizearengatik atzera egin behar izan genuen. Horregatik bertara jotzea erabaki dugu, Esk Pike-tik pasatuz. Tarte honetaz ez du inolako zalantzarik.

**Basoan gora egin dugu  
erreka xarmangarri  
baten aldamenetik**

Angle Tam-etik barrena egin daiteke itzulera, baina, horrek, desnibela areagotzea esan nahi du eta, horrenbestez, leku beretik itzuli gara. Berriz ere Esk Hause-n gaudela Glaramara-tik itzultzea pentsatu dugu. Baina inguru ko gainak ez bezala,

Glaramara-ko hegia nahiko gorabeheratsu eta ez-erosoa da. Jaitsieran (mapan Hind Gill markatzen du; Gill hitzak, bidena-bar, erreka esan nahi du), une batean, eskuak jarri behar izan ditugu eta, kontuan hartuta oso pikua dela, azkenean porru eginda bukatu dit. Hortaz, gogor samarra inuditu zait ibilaldia. Jaitsiera pikua hori saihestu nahi bada, mendiarren bizkarretik aurrera egin dezakegu itzulera leunduz (eta luzatuz).

**ESTEKA INTERESGARRI BATZUK**

**IBILBIDEEN INGURU KO INFORMAZIOA:**  
<https://www.walkingenglishman.com/>

**AUTOBUS ZERBITZUEN INFORMAZIOA:**  
[www.traveline.org.uk](http://www.traveline.org.uk)

**EGURALDIAREN IRAGARPENA:**  
[www.metoffice.gov.uk/outdoor/mountain-safety/lakedistrict.html](http://www.metoffice.gov.uk/outdoor/mountain-safety/lakedistrict.html)  
[www.mountaindays.net/content/weather/lakes.php](http://www.mountaindays.net/content/weather/lakes.php)  
[www.lake-district.gov.uk/weatherline/index.htm](http://www.lake-district.gov.uk/weatherline/index.htm)